- Behin betiko bermea: lizitatzailleak hobetutako kanona (hala bada) eta hamabi hilabeterekin biderkatzearen emaitzaren % 5.
- Indarraldia: bi urte. Urtero luza daiteke, gehienez lau urtez.
- Kokalekua: El Campo auzoa z/g, Santelices Industrialdea. Santelices eskola zaharrak birgaitzeko eta Ostalaritza Eskola gisa eraldatzeko izapidetutako proiektu teknikoaren arabera.
- Diru laguntzak: emakida honi dagokionez, ez da Udalaren diru laguntzarik aurreikusten.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



I.- XEDEA.

Helburua da, lehiaketa irekiaren bitartez eta oinarri hauek azaltzen dituzten baldintzekin bat, Zelaia Ostalaritza Eskolaren udal higiezinaren emakida demaniala esleitzea. Aipatu higiezina Muskizko Santelices Poligonoan dago, El Campo auzoan (z/g), eta kaleko terrazaren erabilera ere barnean da, pleguaren bukaerako agiri teknikoen arabera.

II.- INDARRALDIA, XEDAPEN EGINTZAK ETA KARGAK.

Emakida demanialaren iraupena ezaugarrien taulan zehaztuta dago eta behin betiko esleipena formalizatzen denetik aurrera zenbatuko da.

Emakida tituluaren bidez baimendutako jarduera gauzatzeko emakidaren titularrak eraikitzen dituen eta izaera higiezina duten obren, eraikuntzen eta instalazioen gaineko eskubideei dagokienez, egoera hauetan baino ezingo dira laga edo eskualdatu: bizidunen arteko negozio juridikoak, heriotza, sozietateen bat egitea, xurgatzea edo zatitzea. Lagatze edo eskualdatzeak emakidak iraun bitartean egin daitezke, betiere Udaleko Forlan OALko organo eskudunak baiezkoa ematen dien pertsonak badira (Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legearen 98.1 artikulua) eta SPKLTBko 243.1. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badira. Bestalde, aipatu eskubideak hipotekatu ahal izango dira, baina okupatutako leku demanialean dauden izaera finkoko obrak, eraikuntzak eta instalazioak aldatzeko edo handitzeko xedez, emakidaren titularrak bere gain hartzen dituen maileguen berme gisa besterik ez. Plegu hau berariazko baimena da aipatu hipoteka eratzeko eta, horrela, bete egiten da baimena emateko alde aurreko eta beharrezko baiezkoaren inguruan Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legeko (HAOL) 98.2. artikulua xedatutakoa. Dena den, Udalari alde aurretik jakinarazi beharko zaio eta kontuan hartu beharko dira emakidak berak ezarritako mugak (batez ere denborari dagozkionak) ere bai.

III.- ESLEITZEKO MODUA.

Esleitzeko modua lehiaketa publikoa izango da, eta plegu honek ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein lizitatzaileri irekita dago.

IV.- KONTRATATZEKO AHALMENA.

Pertsona natural eta juridikoek kontratatu ahal izango dute, espainiarrak edo atzerriarrak direla, betiere jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko debekua ez badute (SPKLTBko 60. art.) eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute (SPKLTBko 54. art.). Era berean, HAOLeko 94. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, emakida egin ostean titularrak kontratatzeko debekuren baten menpe badago, emakida iraungi egingo da.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



V.- LIZITAZIO MOTA ETA ALDIAN BEHINEKO KANONA.

Lizitazio mota gorantz hobetu ahal izango da, eta zenbatekoa ezaugarrien taulari dagokion atalean zehaztu da. Urteko zenbatekoa hasiera bateko kanonaren zenbatekoarekin bat dator (hobetua, halakorik gertatzekotan) eta emakida indarrean dagoen bitartean ordaindu beharko da. Aldian behingo kanona urtero berrikusiko da kontsumorako prezioen indizearen edo horren ordezeko indizearen arabera. Dena den, edozein kasutan ere, ez du aldian behingo kanon hobetuaren (hala bada) zenbatekoa murriztea ekarriko. Lehiaketa publikoaren ostean hautatutako esleipendunak lehen urteko aldian behineko kanona Udal honen Diruzaintza Orokorrean ordainduko du 15 eguneko epean, esleipen-erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Halaber, urtero egiaztatuko da aipatu sarreraren egun berean edo hurrengo lanegunean, eta ez da inola ere atzerapenik edo eteterik onartuko. Zenbatekoa zehaztean aintzat hartu da honako Lege hauetan xedatutakoa: HAOLeko 93.4. artikulua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduko (TEOE) 59.3. artikulua, Toki Ogasunak arautzen dituen Legeko (TOL) 20. artikulua eta Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Legeko (TEOL) 36.3. artikulua.

IV.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEA.

1.- Behin betiko bermea.

Kontratua esleitu zaiola jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita, esleipendunak hamabost laneguneko epea izango du behin betiko bermea eratzeko. Zenbatekoa ezaugarrien taulan dago ezarrita.

VII.- PROPOSAMENAK ETA AGIRIAK.

1. Proposamenak aurkezteko lekua eta epea.

Lehiaketa honetan parte hartzeko proposamenak Forlaneko bulegoetan aurkeztuko dira, Meatzari plaza kaleko (zenbaki gabea) 2. solairuan, eta jendaurreko ordutegiaren barruan. Halaber, proposamenak postaz aurkeztu ahal izango dira. Hala egitea erabakitzen bada, interesdunak Posta bulegoan egindako bidalketaren eguna egiaztatu beharko du gordekinarekin eta, egun horretan bertan, Kontratazio Organoari jakinarazi beharko dio proposamena igorri duela, fax edo telegrama baten bidez. Baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onartuko lizitazio iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen bada. Nolanahi ere den, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik hamar egunera ez da postaz igorritako proposamenik onartuko.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



Lizitazioen Erregistroak aipatu fax edo telegrama jaso dela egiaztatuko du dagokion Erregistro Liburuan, eta igortze eta jasotze eguna agertuko da. Eskaintzak aurkezteko epea hogeita sei egun naturalekoa da, aldizkari ofizialetan lizitazio-iragarkia azkenekoz argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Halaber, behin betiko esleipendunak bere gain hartuko ditu iragarkiak argitaratzeak dakartzan gastuak.

2. Proposamenak eta agiri osagarriak.

Proposamenak A eta B gutun azaletan sartu behar dira, eta gutun azalok lizitatuzaileak edo berau ordezkaten duenak itxita, izenpetuta eta zigilatuta edo lakratuta aurkeztuko dira. Horietako bakoitzean, aurrealdean, lizitatuzailearen izena eta edukia zehaztuko dira (aipatzen den eran). Honela, bada:

A) «A GUTUN AZALA»-ren barruan lehiakideak emakidarako proposatzen dituen proiektua, memoria eta baldintzak gordeko dira. Gutun azal honetan inskripzio edo goiburu hau idatziko da:

«INBENTARIOKO “ZELAIA OSTALARITZA ESKOLA” UDAL HIGIEZINARI BURUZKO EMAKIDA DEMANIALA ESLEITZEKO LEHIAKETA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA, AIPATU HIGIEZINA USTIATZE ALDERA.»

Proposamenak aurkezteak lizitatuzaileek plegu honetako baldintza guztiak bete-betean onartzen dituztela dakar, inolako salbuespenik gabe, eta eredu honi jarraitu behar zaio: « jaunak/andreak, adindunak, helbidean bizi denak, NAN zenbakidunak, (bere izenean / ... jaunaren/andrearen ordezkari gisa, ... agiriak egiaztatzen duenez), ko Aldizkari Ofizialean (zenbakikoa, egunekoa) argitaratutako lehiaketaren berri izan du, INBENTARIOKO UDAL HIGIEZINARI BURUZKO EMAKIDA lortzeko, USTIATZEKO. Era berean, aipatu lehiaketan parte hartzen du, eta plegu honetan berariaz adierazitako baldintzei lotzen zaio eta osorik onartzen ditu. Bestalde, hitzematzen du aipatu lehiaketaren xedeari dagokion eskubidearen emakidaduna izango dela. Halaber, agintzen du Administrazio Baldintzen Pleguak ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta gutun azal honetan esleipen hau arautzen duten irizpideak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak daude (agiri guztiak aipatu behar dira eta orijinalak edo benetako kopiak izango dira). Tokia, eguna eta sinadura».

B) «B GUTUN AZAL»ean inskripzio edo goiburu hau idatziko da:
«INBENTARIOKO UDAL HIGIEZINAREN GAINEKO EMAKIDA



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



DEMANIALA LORTZEKO LEHIAKETA IREKIAN PARTE HARTZEKO AGIRI OROKORRAK, USTIATZEKO». Agiri hauek erantsi beharko ditu:

B.1).- Lizitatzaillearen nortasunaren egiaztagiri fede emailea.

- Pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatuko du. Pertsona juridikoa bada, eraketa jasotzen duen eskritura edo agiria eta estatutuak edo eratzeko egintza aurkeztuko ditu. Agiri horietan, bada, jarduera araupetzen duten arauak jasota egongo dira, eta hala badagokio, behar bezala jasota egon beharko dute dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera (SPKLTBko 72.1. art.).

- Proposamena sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia konpultsatua, eskabidea aurkeztzen duen pertsona fisiko bera ez bada, eta ahalmen nahikoa ematen duen agiria, norbait ordezkatzeko bada.

B.2).- Kontratatzeko debekurik ez duelako frogara (SPKLTBko 73. art.) edo, hala badagokio, ardurapeko aitortzea, honako hau adierazten duena: indarrean dauden legeek aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun zioetako batean sartuta ez dagoela, lehiaketa honetara eskaintza bakarra aurkeztu duela (berak edo beste norbaitek), ez duela inolako zorrik Muskizko Udalarekin eta eskatzaile gisa dagozkion zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela.

B.3).- Kaudimen ekonomikoa, teknikoa eta profesionalaren egiaztagiri generikoa. Zehazki, honela egiaztatuko dira kaudimen ekonomikoa eta funtsak atxikitzea: a) Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, agirien bitartez egiaztatu beharko du eskaintza egiten duen erakundearen organo eskudunean erabaki irmoa hartu dela. Erabakiaren bitartez, behin betiko esleipenduna bada, hitzemango du «baldintzen plegu honetako jarduerari dagokionez, funts propio nahikoak dituela Zelaia Ostalaritza Eskolako lokala mantentzeko inbertsioa gauzatzen dela bermatzeko, emakidak iraun bitartean. Helburu hori ezingo da aldatu». b) Lizitatzaillea pertsona fisikoa eta behin betiko esleipenduna bada, B.3.a) atalean agindutakoaren eduki bereko konpromisoa aurkeztuko du. Gainera, hala badagokio, finantza kaudimena egiaztatzen duen adierazpena aurkeztuko du, finantza erakunde batek eginda.

B.4).- Atzerriko enpresaburuek, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jakinarazteko adierazpena aurkeztu beharko dute, baita lizitatzailleari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela jakinarazteko adierazpena ere, kasua hori balitz. Halaber, SPKLTBko 72. artikuluan exijitzen diren baldintzak betetzen dituela ziurtatu beharko da. Era berean, atzerriko enpresek aurkeztzen dituzten agiriak euren hizkuntza ofizialek gaztelerara edo euskarara itzulita aurkeztuko dituzte.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



B.6).- Aldi baterako enpresa elkarteek (ABEE) SPKLTBko 59. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo dute. Ondorio horietarako, eskaintza aurkezten duenak ahalmen nahikoa izan beharko du, ABEE osatzen duten erakunde bakoitzak emandakoa.

B.7).- Aldi bereko proposamenak. Lizitzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du, eta behin aurkeztuta ezingo da atzera egin, aitzakia zeinahi dela ere. Halaber, lizitzaile batek eskaintza bat baino gehiago aurkezten baldin bada, guztiak gaitzetsi eta baztertu egingo dira. Lizitaziora pertsona talde bat aurkezten bada, pertsona bakoitzak bere nortasuna eta ahalmena egiaztatu beharko ditu. Sinatzaile guztien izenak eta egoera adieraziko dira, baita bakoitzaren partaidetza ere. Halaber, taldea Administrazioaren aurrean eta kontratuak iraun bitartean ordezkaturako duen pertsona edo erakunde bat izendatu beharko dute. Banaka edo talde batekin proposamenik sinatu bada, ezingo da beste talde baten partaide izan. Ondorio horietarako, pertsona juridikoak badira, ulertuko da lizitzaile nortasuna dagoela Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituen sozietate talde baten kide bada. Kooperatiben kasuan, hori ulertuko da pertsona fisiko edo juridiko denean kudeatzailea. Era berean, lizitzaile nortasuna dagoela ulertuko da eskaintzak tarteko pertsona edo barneko pertsona batek egiten baldin baditu. Hala, erakunde juridikoei dagokienez, horrelako pertsonarik dagoela ulertuko da martxoaren 5eko 4/2004 Errege Dekretuak onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legeko 16.3. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera. Horren menpe egongo dira, halaber, aldi baterako enpresa elkarte baten barruan eta aldi berean banaka lehiatu dena, baita ABEE batean baino gehiagotan agertzen dena ere.

VIII.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK.

Lehiaketa hau esleitzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Prezioa.

Balioztatu egingo da lizitzaile bakoitzak eskainitako hileko kanonaren prezioa, Udalarari ordaindu beharrekoa. Hori bera Administrazio Baldintzen Pleguan ezarritako kanonaren prezioari gehituko zaio: 55 puntu gehienez ere (ez zaio punturik emango kontratazio pleguaren bigarren klausulan aurreikusitako prezioa eskaintzen duenari, **55 puntu** emango zaizkio Udalarentzat prezio onuragarriena eskaintzen duenari eta gainerakoak proportzionalki balioztatuko dira).

2. Proiektuaren ezaugarriak.

Balioztatu egingo da USTIAPEN ETA FUNTZIONAMENDU PLANA

A) Ustiapen programa, honako hauek adierazita: emango diren zerbitzuen antolakuntzari dagokion urteko plangintza orokorra, funtzionamendu



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



proposamena, talde pertsonala, ustiaketa egingo dutenen eskarmentua eta prestakuntza adierazita.

B) Irekitzeko eta ixteko urteko ordutegiak, garbiketa, kontserbazio eta mantentze lanak, zaintza eta segurtasun zerbitzuak, aseguru polizak eta horien zenbatekoak, horiek gauzatuko dituzten langileak eta abar.

C) Emango den zerbitzuaren emakida proiektua, interesgarritzat jotzen diren ustiaketa baldintzetan hobekuntzak jasotzen dituen. Bestek beste:

- Prestakuntza ikastaroak egiteko aukera, ostalaritza adarrekoak, lokalaren edukiera aintzat hartuta.
- Honako hauek baloratuko dira: menuen osaera, horiek duten oreka dietetiko eta nutrizionala, elikagaiak eta edariak manipulatzeko araudiari zorrotz jarraitzea, prestakuntzaren edukiak eta abar.

D) Jendeari eskainiko zaizkion zerbitzuen gida, produktuak eta ezar daitezkeen prezioak adierazita.

2. puntu honetan gehienez ere 20 puntuko balioa emango da.

3. Lan mundura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzea.

Lehenengo urtean gutxienez lan munduan txertatzeko hitzarmena duten 2 pertsona kontratatuko dira, Muskizko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak proposatuta. Gehienez ere 15 puntu.

4. Laguntzeko metodologia eta lan munduan txertatzeko plana.

Zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako aurreikusita dagoen laguntza metodologia eta lan munduan txertatzeko plana azaltzea. Gehienez ere 10 puntu.

IX.- PLIKAK IREKITZEKO EKITALDIA ETA BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA.

Ahal dela, plikak irekitzeko ekitaldia Forlaneko bilkura aretoan egingo da, jendaurrean, eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den biharamuneko hamabietan. Larunbata baldin bada, hurrengo astelehenean egingo da. Ondorio horietarako, hauek dira Kontratazio Mahaiaren funtzioak eta osaera:

- Forlaneko presidentea, mahaiburu gisa.
- Forlaneko Kontseilu Errektoreko idazkaria (batzordekidea).
- Forlaneko kontu hartzailea (batzordekidea).
- Udal talde bakoitzeko zinegotzi bat (batzordekideak).
- Forlaneko langile publiko bat, mahaiko idazkari gisa jardungo duena.

Kontratazio Mahaia eratu ostean, aldeztu aurretik kalifikazioa jarriko die B gutun azalean denbora eta modu egokian aurkeztutako agiriari. Kontratazio



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



Mahaiak akats materialik aurkituko balu aurkeztutako agirietan, 3 eguneko epea eman dezake lizitatzailleak konpon dezan, betiere Mahaiak egokitzen jotzen badu. Agiriaren akatsak oinarritzkoak badira edo akats materialak konpondu ezin badira, proposamenari ezezkoa emango zaio. Ondoren, justifikatutako arrazoirik egon ezean, Kontratazio Mahaiak jendaurreko ekitaldia egingo du, eta bertan ezagutzera emango du lizitatzailleek B gutun azaletan aurkeztutako agirien kalifikazioen emaitza. Halatan, baztertutako lizitatzailleek eta arrazoen berri emango du, bertaratuei oharrak egiteko aukera emango die eta esandakoak aktan jasoko dira. Jarraian, Mahaiko idazkariak A gutun azala irekiko du, eta, batetik, organo eskudunari behin-behineko esleipena proposatu ahal izango dio zuzenean; bestalde, baldintzak betetzen dituzten proposamenak zerbitzu tekniko eskudunari igortzeko erabakia har daiteke, proposamen onuragarriari buruzko txostena egin dezaten. Hala bada, txosten teknikoa egin ostean, Kontratazio Mahaiak teknikoki ebaluatutako gainerako irizpideekin batera balioztatuko du, lehiaketa behin-behinean esleitzeko edo, hala badagokio, hutsik uzteko.

Forlanek lehiaketa hutsik uzteko eskubidea izango du honako egoera hauetan: lehiakideek pleguko baldintzak betetzen ez dituztenean edo, aurkeztutako proposamenen edukia aintzat hartuta, esleipenaren oinarriak behar bezala eta zorrotz betetzeko bermerik ez dagoenean. Horrelakorik gertatzen bada, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango eskaintzak gaitzesteagatik. Aipatu edozein arrazoirerengatik edo lizitatzailleak ez bertaratzeagatik lehiaketa hutsik geratzen bada, Udalak berriro egin ahal izango du, indarrean dauden legeek diotenarekin bat etorrita.

Mahaiaren erabakia behin-behineko esleipena izango da, eta ez dio eskubiderik emango behin-behineko esleipendunari.

X.- BEHIN BETIKO ESLEIPENA.

Behin betiko esleipena esleipendunari jakinaraziko zaio hurrengo 15 lanegunetan. Halaber, esleipendunak beste 15 egun izango ditu, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita, behin betiko bermea eta esleipenaren hileko kanona (hobekuntzarekin, hala balegokio) eratu dituela frogatzen duen egiaztagiria aurkezteko. Era berean, dagozkion zergak Forlaneko gordailuen kutxan ordaindu dituela ziurtatu beharko du kontratua formalizatu aurretik. Hori egin ezean eta eskubidea formalizatzeko baldintzak betetzen ez baditu, edo eskubidea ezarritako epean formalizatzea eragozten badu, esleipena ez da eraginkorra izango, eta organo eskudunak hurrengo eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleari dei egin ahal izango dio.

XII.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Emakida demaniala eratzeke kontratua izango da, jabetzarako eskubidea eman gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe (OEko 80.11. art.). Ondoren, Administrazio agirian formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpenetik



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



aurrera zenbatzen hasita hogeita hamar eguneko epean, betiere esleipenaren kanon osoa eta behin betiko bermea Diruzaintzan sartu direla egiaztatu ostean. Nolanahi ere den, kontratua eskritura publikoan gauzatuko da esleipendunak hala eskatzen badu, eta eskritura publikoa emateko gastuak bere kontu izango dira.

Plegu honek kontratu izaera izango du, eta esleipendunak sinatu beharko du, ados dagoela ziurtatzeko.

XIII.- GASTUAK.

Esleipendunak bere gain hartuko ditu behin betiko esleipena bideratzeko beharrezkoak gerta litezkeen agiri publiko edo pribatuak emateak dakartzan gastuak. Era berean, esleipendunari baino ez zaizkio egokituko emakidak eragin ditzakeen gastuak, arielak eta edozein motatako zergak.

XIV.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Emakida demaniala sinatu ostean, esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Zelaia Ostalaritza Eskolaren lokalaren erabilerari eutsi beharko dio emakida demaniala indarrean dagoen bitartean.
- Ezarritako hileko kanon zehatza eta eguneratua ordaindu beharko du.
- Udalaren higiezinan zein zerbitzuko erabiltzaileengan kalteak saihestu beharko ditu, eta, halakorik gertatzen bada, eragin daitezkeen kalte eta galerei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko du. Era berean, esleipendunak erantzukizun zibil nahikoko aseguru poliza sinatu beharko du, eta indarrean eta eguneratua egongo da emakidak iraun bitartean. Aipatu polizak pertsonen, materialei edo moralari eragindako kalteak estali beharko ditu, baldintzen plegu honen xedea den emakidaren ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorioz egin denagatik edo egin ez denagatik.
- Hala balegokio, emakida honen xede diren lursaila, eraikuntza(k) eta instalazioa(k) garbitzeaz, mantentzeaz, zaintzeaz eta konpontzeaz arduratuko da.
- Lizitatuak xede den jarduera baino ezingo du ustiatu, eta jarduera gauzatzeko gastuak (argia, ura, etab.) ordainduko ditu.
- Erabileraren helburu diren ondasunak libre utzi beharko ditu eta administrazioaren menpe jarri, hiru hilabeteko epean hori egiteko deia egiten denetik aurrera zenbatzen hasita. Halaber, uztea adosteko eta gauzatzeko ahalmena aitortuko dio administrazioari.
- Aitortuko du Forlan OALk gaitasuna duela emakidaren xede diren ondasunak ikuskatzeko, baita emakidaren eraikuntzak eta instalazioak ikuskatzeko ere.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



- Emakidaren indarraldian zehar, plegu honen helburu den zerbitzua gauzatzeko behar diren ekipo tekniko eta materialak jarriko ditu, baita langileak zein bitarteko lagungarri eta materialak ere. Zehazki, hala balegokio, emakidadunak atxikitako langileak bere ardurapean baino ez dira egongo. Horrezaz gain, langileek legeek xedatutakoa bete beharko dute, besteak beste, lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasunari nahiz higienari dagokienez. Hartara, Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango lan arloko edozein arau betetzen ez bada.
- Forlanek, hala badagokio, teknikari bat izendatuko du, eta bere jarraibideak aintzat hartuko dira, zerbitzuaren jarraipenari eta betebeharrak betetzeari dagokienez, besteak beste.
- Administrazioari kalte-ordainak eman beharko dizkio hemen aipatutako betebeharrak bete ezean edo kontratua amaitutzat ematea dakarten eragiketen ondorioz, horiek ebazpen judizial edo administratibo batek ezartzen badio ere.
- Egiaztatu egin beharko du lokala kudeatzeaz jendea lanean hasteko jarduten duten gizarte erakundeak arduratzen direla, lanean asteko jarduten duten enpresekin proiektuak eginez, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen kalitatezko enplegua emateko. Halaber, esparru horretako prestakuntza zerbitzuaren bidez, ostalaritzaren sektoreko profesionalen prestakuntza ahalbidetuko du.
- Indarrean dauden legeek agintzen dituzten gainerako betebeharrak bete beharko ditu.

Plegu honek dakartzan eginkizunen eta, emakidak iraun bitartean, horiek lotuta gerta daitekeen guztiaren berri izateko, jarraipena egiteko batzorde bat era daiteke. Forlaneko presidentek, teknikari batek eta erakunde esleipendunaren ordezkari batek osatuko lukete batzorde hori.

XV.- ZELAIA OSTALARITZA ESKOLAREN EMAKIDAREN EZAUGARRI ZEHATZAK.

Emakidadunak baldintza hauek bete beharko ditu:

G) Helburua.- Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak lanean hastea.

Enpresaren helburu edo gizarte-xedeen artean, **“bartzertze arriskua duten pertsonen lanean hasteko laguntza ematea”** jaso behar da, emakidaren osagai baita.

Zerbitzuen exekuzio materialerako, lanean sartzeko adituen ekoizpen



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



egiturak izango dira (lanean hasten laguntzeko enpresak, esaterako). Esperientzia egiaztatua izan behar dute abiaraziko duten jardueran, ostalaritzan eta horien inguruko prestakuntzaren esparruan.

3. Ostalaritza zerbitzua

Helburua da urte osoan zehar ororentzat irekita egongo diren kafetegi-taberna eta jatetxea kudeatzea.

4. Ostalaritzaren inguruko prestakuntza

Esleipendunak ostalaritzaren inguruko prestakuntza zerbitzua emango du, egungo lanbide heziketaren arloko beharrezaneiei erantzuna emateko, ostalaritzaren inguruko prestakuntza jaso duten pertsonen lanean hasteko eta gizarteratzeko aukera izan dezaten.

Azken zerbitzu hori (prestakuntza) azpikontratatu ahal izango da, betiere azpikontrataturako enpresak bere gizarte helburuen artean badu gizartetik bazter gelditzeko arriskua duten pertsonen laguntzea. Nolanahi ere den, azpikontratatzeko horrek Forlanen oniritzia izan behar du.

H) Ostalaritza zerbitzuen edukiak, gizarteratzen laguntze aldera.

4. Jantoki zerbitzua

Bazkari zerbitzu honen oinarri nagusia eskaintza anitz eta kalitatezkoa egongo da, hala jatekoen erabileran nola horien prestakuntzan. Asteko irekitze egunak Forlanekin negoziatuko dira.

5. Kafetegi zerbitzua

Edari beroak eta edari hotzak emango dira.

6. Ostalaritzaren inguruko prestakuntza zerbitzua

Forlanekin elkarlan zuzena eginez, prestakuntza hori esparru bikoitz batekin lotu behar da. Bertan, egiazko ostalaritza jarduera dago, prestakuntzaren kalitatea bermatzen duena eta ikastaro horietako parte hartzaileek lanean hasteko dituzten aukerak nabarmen handitzen dituena.

Prestakuntza hori ostalaritza lotearen osagarria da; izan ere, jatetxea eta/edo kafetegia prestakuntzaren kalitatea ziurtatzeko tresnak dira.

Ikastaroak doakoak izango dira Forlanekin elkarlanean hautatzen diren ikasleentzat.

I) MATERIALAK ETA EKIPAMENDUAK



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



Forlanek bere gain hartuko du plegu honen eranskinean aipatzen den ekipamendua. Kontratista arduratuko da zerbitzua modu egokian emateko beharrezkoa den gainerako materialaz. Kontratista arduratuko da lokalean jarriko diren altzariak eta ekipamenduak zaintzeaz, hausten edo hondatzen diren osagaiak ordeztuko ditu, eta bere gain hartuko du makineria, altzariak eta lokala mantentzea. Inbentarioa egingo da alokairua hasi aurretik eta bukatutakoan, Udalak emandako materialek bere horretan dirautela berreste aldera

J) GARBIKETA ETA MANTENUA

Kontratatistak bere gain hartuko du lokala eta ondoko terraza garbitzeko eta desinfektatzeko erantzukizuna, bai eta behar bezala mantentzekoa (pintura, argindarra, iturgintza eta, oro har, estetika) ere. Udala eraikinaren egiturazko osagaiak mantentzeaz arduratuko da.

K) ERREKLAMAZIOAK

Erreklamazio liburua izango du, eta jendearen, agintarien zein agintaritzako agenteen esku egongo da beti.

L) BESTE BALDINTZA BATZUK

Ezingo du txapon, joko edo tabako makinari jarri. Era berean, legeekin bat, zaindu egin beharko du adingabeei alkohola ez saltzea.

XVI.- ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Emakidadunak egindako arau hausteak hiru motatakoak izan daitezke: arinak, larriak eta oso larriak. Halaber, arau hausteari dagokion zigorra ezarriko da, legeek aurreikusitakoarekin bat etorritik. Honako hau da arau hausteen sailkapena:

1.- Arau-hauste arinak:

- Betebeharrak betetzeko atzerapenak.
- Higiezina arduraz eta behar bezala ez zaintzea.
- Udaleko zerbitzu teknikoei ez uztea ikuskaritza egiten.

2.- Arau-hauste larriak:

- Zigor arinak eragiten dituzten ekintzak behin eta berriro gauzatzea.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



- Jabari publikoaren edo instalazioen balio-galera dakarren jarduera gauzatzea.
- Lagatako jabari publikoa ohikoa ez den moduan erabiltzea.

3.- Arau hauste oso larriak:

- Arau-hauste larriak behin eta berriro gauzatzea.
- Plegu honetan ezarritako edozein baldintza ez betetzea.
- Erabilera baldintza horien inguruan Udal Administrazioak ematen dituen aginduei edo argibideei jaramonik ez egitea.
- Plegu honetan eskatzen diren aseguru-polizak ez kontratatzea edo bertan zehaztutako baldintzez bestelako baldintza batzuetan kontratatzea.
- Aseguru-polizen epemugan ordainagiriak ez ordaintzea.

7. ZIGORRAK

*Aurreko artikuluan definitutako arau haustek honako zigor hauetakoren baten edo guztien bidez zigortu ahalko dira:

- Ohartarazpena.
- Isuna.
- Emakidadunari gaitasunak kentzea, lokala ustiatzeko hurrengo lehiaketan parte har ez dezan.

*Aurretik aipatutako arau-haustek direla eta, honako isun hauek ezarriko dira:

- Arau hauste arinak: 50 eta 150 € bitarteko isuna.
- Arau hauste larriak: 151 eta 300 € bitarteko isuna.
- Arau hauste oso larriak: 301 eta 600 € bitarteko isuna.

Dagokion zigorra gorabehera, jabari publikoan edo instalazioetan kalteak eragiten badira eta horiek ezustean edo ezinbestean egindako ekintzen ondorio ez badira, Administrazioak horien kalte-ordaina ezarri ahalko du. Horretarako, Forlanek izendatutako teknikariek aurre-balioztatzea egin beharko dute.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



Arau-hauste larriei dagokienez, lehengo aldian dagokion zigorra ezarriko da; eta berriro gertatzen bada, emakidaren iraungitzea eta erreskatea eskatu ahal izango da.

Zigorren kopuru ekonomikoa urtero handituko da automatikoki Kontsumorako Prezioen Indizearen edo hori ordeztzen duen indizearen arabera.

XVII. EMAKIDUNAREN BETEBEHARRAK LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO ARLOAN.

Emakidadunak ezinbestean bete behar ditu lan, gizarte segurantza, minusbaliatuak gizarteratze eta laneko arriskuen prebentzio arloan indarrean dauden legeak, honako hauetan xedatutakoarekin bat etorritz: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Lege horren 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioari dagokiona, garatzen duena; 39/1997 Errege Dekretuak, urtarrilaren 17koak, onesten duen Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudia, eta indarrean dauden gainerako legeak.

Hori dela eta, emakidaren esleipendunak kontratua formalizatu eta HIRU HILABETEKO epean honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkio Forlani:

- Lokalean lan egingo duten langileen zerrenda (NAN, izen-abizenak eta lanbide prestakuntza). Zerrenda horretan, tamainaren eta jardueraren arabera, kontratatutako enpresaren prebentzio arduradun bat eskatu ahal izango da (prebentzio baliabidea eta prebentzio prestakuntzaren arloan, 54/03 Legearekin bat), Giza Baliabideak-Prebentzioa irizpideen arabera.
- Langileen agiriak, banakako babeserako ekipoak jaso eta erabiltzen dituztena egiaztatzen dutenak.
- Enpresaz besteko Prebentzio Zerbitzuarekin indarren dagoen kontratua edo enpresak bere prebentzio zerbitzua eratu duela egiaztatzen duten agiriak, bai eta Lan arloko Agintaritzaren ziurtagiria, indarrean dagoena ere.
- Enpresaz besteko Prebentzio Zerbitzuak eginiko ziurtagiria, ziurtatze aldera gauzatu egin direla Ostalaritza Eskolan jardungo duten lanpostuen Arriskuen Balioztatzea eta aginduzko Prebentzio Plana.
- Langileen gaitasun-egoeraren azterketaren kopia, Osasun Zaintzaren bidez egindakoa.
- Euren laneko eta zerbitzuko berariazko arriskuei eta hartu beharreko neurri prebentiboari buruzko prebentzio arloko prestakuntza jaso izanaren ziurtagiriak, eta Ostalaritza Eskolan jardungo duten langileek arriskuei buruz jasotako informazioaren kopia.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



- Erantzukizun Zibileko Poliza eta ordainketen egoera.

Aurretik zerrendatutako agiriak eguneratu egin beharko dira aldaketarik eginez gero. Edo, hala balegokio, kontratu-harreman berri bati hasiera ematen bazaio, kontratazio organoak baimena eman ostean.

Laneko Arriskuen Prebentzioei buruzko azaroaren 8ko 31/95 Legeak bere 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresaburuek laneko arriskuen prebentzio arloko betebeharrak ez betetzeak, erantzukizun administratiboa ekarriko du berarekin eta, hala badagokio, erantzukizun penalak eta zibilak, ez betetzeak eragin ditzakeen kalteengatik.

Halaber, kontratistak laneko arriskuen prebentzioari buruzko klausula honetan aurreikusitako xedapenak betetzen ez baditu, kontratua eten ahal izango da, pliegu honetako 41. klausulan zehaztutakoarekin bat.

XVIII.- KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK.

Emakida kasu hauetan iraugiko da (HAOL 100):

- Epea amaitu delako.
- Eman diren ondasunak fisikoki edo juridikoki galdu egin direlako.
- Ondasuna desafektatu delako.
- Ados jarri direlako.
- Baliogabetu egin delako.
- Epaileak ebazpena eman duelako.
- Emakidadunak uko egin duelako
- Iraungi egin delako.
- Erabiltzailea edo emakidaduna hil egin delako edo ezintasuna duelako, edo nortasun juridikoa iraugi delako.
- Bat-egitearen, xurgatzearen edo zatitzearen ondorioz, erabiltzaile edo emakidadunaren nortasun juridikoa aurrez baimenik izan gabe transmititu edo aldatu delako.
- Kalte-ordaina eman edo baimena alde bakarrak ezeztatu ostean, emakida erreskatatu delako.
- Kanona ordaindu ez delako, edo emakidaren titularrak ezarritako betebeharren ez betetze larria egin duelako. Ez betetze horiek emakida edo baimena eman zuen organoak deklaratu ditu.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



- Ondarea desagertu edo ustiatzea agortu delako.
- Emakida hau (HAOL, 100 i)) arautzen duten baldintza orokor eta partikularretan adostutako edo legedi aplikagarrietan xedatutako beste edozein arrazoirengatik.

XIX.- OBRAK ETA INSTALAZIOAK LEHENERATZEA.

D. Emakidaren epea behin betiko esleipenaren erabakia jakinarazten den unean amaituko da eta emakida iraungi egingo da. Hortaz, higiezina itzuli egin beharko da laga zen uneko baldintza berean, bai eta ondasunen inbentarioa ere.

E. Emakidadunak Plegu honetan zehaztutako edozein baldintza edo betebeharrak ez badu, esleipena ebatziko da eta emakida demaniala Forlani itzuliko zaio, eta bere egingo ditu eraikuntza, obrak eta gainerako instalazioak, ondasun zein osagarri guztiekin, eta ez dio emakidadunari edo hartzekodunari inolako kopururik ordaindu edo konpentsatu beharko horien truke. Halaber, eta hala badagokio, emakidadunak ezarri ahal izan dituen eskubide errealak edo pertsonalak automatikoki iraungitzea ekarriko du.

Ez betetzeak egiaztatzeko, nahikoa izango da dagokion administrazio espedientearen bidez gauzatutako aurretiko errekerimendua (entzunaldia eskainiko zaio interesdunari eta hura jasoko duen Forlanen presidentetzaren ebazpenarekin amaituko da) edo hura jasotzen duen notario-akta eta emakida demaniala eratzeko kontratua. Eta, hala badagokio, emakidadunak ordaindu beharko ditu irauten duten karga eta zerga guztiak.

F. Epea amaitzeagatik edo adostutako baldintzak eta betebeharrak ez betetzeagatik iraungitzen bada, udal eraikinak, establezimenduak eta dauden gainerako instalazioek egoera onean egon beharko dute. Osterantzean, emakidadunak ordaindu beharko ditu egin beharreko konponketa lanak eta ordezteak. Horretarako, Udalak instalazioen egoera aztertzeko teknikariak izendatuko ditu, eta, ikuskaritza teknikoaren emaitzen arabera, beharrezkotzat jotzen diren konponketa-obrak eta lanak egitea aginduko du. Horretarako, Forlanek teknikariak izendatuko ditu, egoera ikuskatzeko eta, ikuskaritza teknikoaren emaitzaren arabera, beharrezkotzat jotzen diren konponketa-obra eta lanen exekuzioa agintzeko.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



XX.- EMAKIDUNAREN ETA HIRUGARRENEN ARTEKO HARREMANA.

Emakida hau jabetzako eskubiderik gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango da.

XXI.- EZ ORDAINTZEA.

Udalak ez ditu bere gain hartuko emakidadunak hornitzaileei egin gabeko ordainketak, ez eta instalazioetan egin daitezkeen narriadurak edo lapurretak ere.

XXII.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Indarrean dauden legeek jasotako mugen barruan, eta betiere bertan ezartzen diren baldintza eta ondorioak kontutan izanik, Administrazioak eskubidea izango du kontratua interpretatzeko, kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, kontratua amaiera emateko eta horren eraginak zehazteko. Hartutako erabakiek amaiera emango diote administrazio bideari eta berehala betearaztekoak izango dira. Dagokion espedientean entzunaldia emango zaio kontratistari.

XXIII. APLIKA DAITEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Plegu honetan berariaz aurreikusi gabe dauden kasuetan honako hauek aplikatuko dira: TEOEren 58. artikulua eta hurrengoak; Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 3.1, 4. eta 78. artikulua eta hurrengoak; HAOLen 5.1 eta 4, 6, 28, 29.2, 30, 84, 85.2 eta 86.2 –ez oinarritzkoak- eta 91.4 zein 93 artikulua eta hurrengoak; SPKLTBren 4.2 artikulua eta Bigarren Xedapen Gehigarria; Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 79.3, 80.1 eta 127.1.e) artikulua eta hurrengoak; Toki Araubidearen Testu Bateratuaren (TATB) 74. artikulua eta hurrengoak, eta aplika daitezkeen eta indarrean dauden arloko gainerako lege-xedapenak.

XXIV.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratua prestatzean eta esleitzean sor daitezkeen auzi guztiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dira (egintza bereizgarriei dagokienez). Kontratuaren eraginei eta iraungitzeari buruzko auziei dagokienez, berriz, horiek ohiko Jurisdikzio Zibilaren aurrean aurkaratuko dira. Bestalde, kontratutik erator daitezkeen prozedura judicialak Korporazio kontratatzaileak egoitza duen tokian jurisdikzioa duten Epaitegi eskudunen esanetara geratzen direla ulertzen da.



I. ERANSKINA

Ostalaritza Eskolako ekipamenduaren inbentarioa

SUKALDEKO EKIPAMENDUA

4. HARRASKA INDUSTRIALA MOD. FI-147/10
 - a. 500 x 500 x 300 mm-ko 2 putzurekin.
 - b. Dimentsioak: 1.800 x 600 x 850 mm.
5. HARRASKA INDUSTRIALA "Edukiera handia" MOD. BF-147
 - a. 1.200 x 500 x 350 mm-ko 1 putzurekin.
 - b. Dimentsioak: 1.400 x 700 x 850 mm.
6. MODULUKAKO APALATEGIA
 - a. 4 mailarekin.
 - b. Dimentsioak: 2.924 x 500 x 1.740 mm.

EGOSTE EREMUA

19. BAXERA GORDETZEKO ALTZARIA MOD. MNP-180
 - a. 2 ate gidaridunekin
 - b. Neurriak: 1.800 x 700 x 85 mm.
20. REPAGAS SUKALDEA MOD. C-941
 - a. 4 su ireki eta labea
 - b. Neurriak: 800 x 900 x 850 mm.
21. REPAGAS FRY-TOP MOD. FT-92/L
 - a. Plaka zapala
 - b. Neurriak: 800 x 900 x 850 mm.
22. REPAGAS FRIJIGAILUA MOD. FG-309
 - a. 2 ontzi
 - b. Neurriak: 800 x 900 x 850 mm.
23. REPAGAS ELEMENTU NEUTROA MOD. M-49/N
 - a. Neurriak: 400 x 900 x 850 mm.
24. REPAGAS MARIA BAINUA MOD. BM-91
 - a. Neurriak: 400 x 900 x 850 mm.



25. LABERAKO EUSKARRIA
a. Neurriak: 965 x 835 x 700 mm.
26. LABE MISTOA KONBEKZIOA-LURRUNA MOD. GVM-0101
a. Edukiera: 10
b. Neurriak: 965 x 835 x 700 mm.
27. MURAL KE ERAUZGAILUA
a. Neurriak: 4.500 mm x 1.100 mm.
28. BAXERA GORDETZEKO ALTZARIA
a. 2 ate gidaridun
b. Neurriak: 1.800 x 700 x 85 mm.
29. HOZKAILURAKO ALTZARI ERREFRIGERATUA, ARRAINAK
EDUKITZEKO LEKUAREKIN
a. 4 ate (1 arraina gordetzeko lekuarekin)
b. Neurriak: 1.400 x 720 x 2.100 mm.
30. LANERAKO ALTZARIA, NEURRIRA EGINDAKOA, 2 ONTZIREKIN
a. 550 x 500 x 300 mm-ko 2 harraska putzurekin.
b. Tresnetarako 2 tiradera.
c. Neurriak: 7.975 x 700 x 850 mm.
31. 1500eko MAHAI ERREFRIGERATUA
a. 2 ate aurrealdean
b. Neurriak: 1.500 x 600 x 850 mm.
32. SAMMIC KONBINATU-TXIKIGAILUA MOD. TR/BM-350
a. 2 beso ezberdin
33. SAKOTEAK EBAKITZEKO MOD. USA-280
a. Ebakiaren diametroa = 280 mm
34. SAMMIC BARAZKIAK EBAKITZEKO MOD. CA-300
a. Neurriak: 290 x 560 x 520 mm.
35. 1500eko MAHAI ERREFRIGERATUA
a. 2 ate aurrealdean
b. Neurriak: 1.500 x 600 x 850 mm.
36. REPAGAS MAHAI BEROA MOD. AM-167
a. 2 ate gidaridun



- b. Neurriak: 1.600 x 700 x 850 mm.

BARRA

11. ITV IZOTZA EGITEKO MAKINA MOD. P-45 W
a. Ekoizpena = 52 kilo/ordu
12. BARRAREN BARNEALDEA, NEURRIRA EGINDAKOA, PUTZUAREKIN
a. Harraskarako 1 putzu.
b. Neurriak: 1.395 x 550 x 850 mm.
13. JEMI EDALONTZIAK GARBITZEKO MOD. GS-6
a. Harraskarako 1 putzu.
b. Neurriak: 475 x 550 x 720 mm.
14. BOTILAK HOZTEKO BOTILATEGIA MOD. BE-200
a. 5 ate
b. Neurriak: 2.480 x 550 x 870 mm.
15. BARRAREN BARNEALDEA, ESKUADRAN
a. Harraskarako 1 putzu.
b. Neurriak: 1.100 + 1.540 x 550 x 850 mm.
16. KAFE MAKINA JARTZEKO KONTRABARRA, NEURRIRA EGINDAKOA
a. Kafe hondarretarako 1 tiradera, 2 tiradera eta barneko 2 ate
b. Neurriak: 5.500 x 600 x 1.050 mm.
17. MAIRAL KAFE EHOAILUAK MOD. MC-2
a. Dosifikatzeko ahalmena = 600 g.
18. MIRALI KAFE MAKINA ELEKTRONIKOA MOD. ARIANNE 2 GRUP.
a. 2 talde
19. KUTXA ERREGISTRATZAILEA
a. Alfamerikoa
20. KANPAIKO ETA IRTEERA TXINOKO HODITERIA INOX. METROAK

EKIPAMENDU GEHIGARRIA

13. 2 GELAKO ESPARRUA, HOZTEA ETA IZOZTEA
a. Izozteko bat



- b. Hozteko bat.
- c. Neurriak: 3.100 x 2.000 x 2.400 mm.

14. GELETARAKO AHAPALDIAK

15. JEMI ONTZI GARBIGAILU INDUSTRIALA MOD. GS-83-M

- a. Ontzi garbigailuari dagozkion sarrera eta irteera mahaiekin.

16. 2,5 METROKO MAHAI ERREFRIGERATUA

- a. 18/10 altzairu herdoilezinez egina.

17. SUKALDE INDUSTRIALA. 4 SU LABERIK GABE

- a. 4 su ireki (LABERIK GABE).

18. MIKROUHIN HANDIA

- a. Altzairu herdoilezinez eginda

19. KANILA ALTUAK

20. KANILA PEDALDUNA, SISTEMAREKIN

21. HARRASKAKO KANILA-DUTXA TERMOSTATIKOA, ELTZEETARAKO

22. ERRAMALILOAK, SIFOIAK ETA BESTE MATERIAL BATZUK

23. EUSTEKO BARRA ERAISGARRIA, BIRIBILKIAK
GORDETZEKOAREKIN MOD. CNTX-71D

24. 135°-KO EUSTEKO BARRA, ALBOKOA, MOD. CNTX-700 A

BARRAKO ETA JANGELAKO ALTZARIAK

6. JARLEKUA MOD. 66 BERN. WENGUE TAP. B SERIEA.

- a. 80 unitate.

7. KAFETEGIKO JARLEKUA MOD. 66 BERN. WENGUE TAP. B SERIEA.

- a. 21 unitate.

8. AULKIA MOD. 110 BERN. WENGUE TAP. B

- a. 7 unitate.

9. MAHAIA MOD. 959 ESTALKIA 85 X 85 LAM. 2,2 BERN. WENGUE

- a. 14 unitate.



DESARROLLO LOCAL
TOKI GARAPENA
AGENTZIA



10. MAHAIA MOD. 959 ESTALKIA 120 X 85 LAM. 2,2 BERN. WENGUE
a. 12 unitate.

Hau guztia jendurrean jartzen da, orok jakin dezan.

Muskizen, 2013ko maiatzaren 6an



Sin.: Borja Liaño Abarategi. Presidentea.